

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

608/2021 Foru Agindua, azaroaren 9koa, TicketBAI betebeharraren ezarpen egutegia aldatzen duena eta erretiroa hartzeko adinetik hurbil dauden pertsona fisiko jakin batzuk hura betetzetik salbuesten dituen.

Azaroaren 6ko 3/2020 Foru Arauak, Iruzur fiskala eragozteko lanabes teknologikoak erabili beharra ezartzen duenak, TicketBAI obligazioa betetzea ezarri zuen hainbat zergadunentzat, alegia, sozietateen gaineko zergaren, jarduera ekonomikoak garatzen dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta establezimendu iraunkor baten bidez errentak lortzen dituzten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunentzat.

Geroago, abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuak, TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua onesten duenak, betebeharraren horren erregulazioa osatzen duen erregelamendu bidezko garapenari ekin zion.

Era berean, aipatutako foru dekretu horren xedapen iragankor bakarrak betebeharraren horren ezarpen egutegia finkatu zuen. Horren arabera, zergadunek beren jarduerak barnean hartzen duen epigrafearen arabera bete behar dute TicketBAI obligazioa. Nolanahi ere, TicketBAI obligazioa borondatez bete ahal izango dute, 2021eko urtarrilaren 1etik ezarpen egutegian xedatutakoaren arabera derrigorrez bete behar duten arte.

Hori horrela, TicketBAI betebeharraren ezarpen data hurbil dagoenez, betebeharraren horretara ahalik eta modu eroso eta errazenean egokitzen laguntzeko, egokitze jotzen da zergadunek sistemari beren borondatez atxikitze duten epea 6 hilabetez luzatzea, derrigorrez bete beharrekoa izan aurretik eta zehapen araubidearen mende egon gabe haren funtzionamendua ezagutzen jarraitu ahal izan dezaten.

Gainera, kontuan hartu behar da eten digitala nabarmen murriztu bada ere – halakotzat hartzen dira bai teknologia berrietarako sarbidean dagoen aldeari dagokiona eta bai teknologia horiek erabiltzeko aukera duten biztanleek

teknologia horiek ulertzeko eta erabiltzeko dituzten trebetasunari dagokiona—, salbuespen gisa, oraindik ere zailtasunak ikus daitezke biztanleriaren sektore jakin batzuetan. Horixe da, adibidez, adinaren arabera eten digitalaren kasua. Bereziki, informazioaren gizarteak aurrerapen handia izan duen arren, gaur egun erretiroa hartzeko adinetik hurbil dauden pertsona askok zailtasunak izaten jarraitzen dute aparatu edo ekipo teknologikoak erabiltzeko orduan, edo, zuzenean, teknologia horiek erabiltzea saihesten dute.

Salbuespenezko egoera horrek justifikatzen du TicketBAI obligazioa betetzetik salbuetsita gelditzea erretiroa hartzeko adinetik hurbil dauden pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak, betiere baldintza jakin batzuk betetzen badituzte. Hau da: 2021eko abenduaren 31n jarduera ekonomikoak egiten aritzea eta 60 urte edo gehiago izatea, derrigorrez elkargoko kide izatea eskatzen duen jarduera profesional batean aritzeagatik administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta dauden pertsona fisikoen kolektibokoak ez izatea eta 2021ean besteren konturako langileak ez edukitzea.

TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua onesten duen abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuak xedapen iragankor bakarraren 3. apartatuak xedatzen duenez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak xedapen iragankor honetan jasotako egutegia aldatu ahal izango du, foru agindu bidez.

Erregelamendu horrek 6. artikuluko 2. apartatuan ezartzen duenez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak TicketBAI betebeharretik salbuesteko beste kasu batzuk ezarri ahal izango ditu, foru agindu bidez, betiere hori justifikatzen duten salbuespenezko zirkunstantziak daudenean.

Horrenbestez, hau.

XEDATZEN DUT

1. artikulua. TicketBAI betebeharraren ezarpen egutegia aldatzea.

Aldatu egiten da TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua onesten duen abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren xedapen iragankor bakarrean jasotako TicketBAI betebeharraren ezarpen egutegia, eta honela gelditzen da idatzita:

1. Zergadunak TicketBai sistema erabiltzera behartuta egongo dira, kontuan hartuta zer jarduera enpresarial, profesional edo artistiko egiten duten apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemaileaz onartutako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateginaren arabera, ezarpen egutegi honi jarraituz:

a) 2022ko uztailaren 1ean, hauek egongo dira behartuta:

— Zerga arloko Kudeaketa zerbitzuak ohikotasunez egiten dituztenak, azaroaren 5eko 582/2014 Foru Aginduaren 9. artikuluan aipatuak.

b) 2022ko irailaren 1ean, epigrafe hauetako jarduerak egiten dituztenak egongo dira behartuta:

— 1. sekzioan, 834. eta 849. talde bitartekoak.

— 2. sekzioan, 011. eta 841. talde bitartekoak.

c) 2022ko azaroaren 1ean, epigrafe hauetako jarduerak egiten dituztenak egongo dira behartuta:

— 1. sekzioan, 641. eta 665. talde bitartekoak eta 671. eta 687. talde bitartekoak.

— 2. sekzioan, 851. eta 899. talde bitartekoak.

d) 2023ko apirilaren 1ean, epigrafe hauetako jarduerak egiten dituztenak egongo dira behartuta:

—1. sekzioan, 501. eta 508. talde bitartekoak; 691. eta 757. talde bitartekoak; 833. taldea; eta 851. eta 999. talde bitartekoak.

e) 2023ko ekainaren 1ean, epigrafe hauetako jarduerak egiten dituzten zergadunak egongo dira behartuta, bai eta nekazaritza, mendeko abeltzaintza, basogintza, arrantza jarduerak eta zergaren tarifetan zehaztu gabe dauden gainerako enpresa, lanbide edo arte jarduerak egiten dituztenak ere:

— 1. sekzioan, 011. eta 495. talde bitartekoak; 611. eta 631. talde bitartekoak; eta 761. eta 832. talde bitartekoak.

— 3. sekzioan, 011. eta 059. talde bitartekoak.

2. Jarduera bat baino gehiago egiten dituzten zergadunen kasuan, baldin eta jarduera horiek bi epigrafetan edo gehiagotan sartuta badaude eta horiei data desberdin bat ezarri bazaie, TicketBAI betebeharra jarduera guztietarako exijituko da lehenengo jarduerarako ezarri denean.

2. artikulua. TicketBAI betebeharretik salbuestea erretiroa hartzeko adinetik hurbil dauden pertsonak.

1. TicketBAI betebeharretik salbuetsita gelditzen dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadun diren pertsona fisikoak, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) 2021eko abenduaren 31n jarduera ekonomiko batean aritzea.

b) Egun horretan 60 urte edo gehiago izatea.

c) Derrigorrez elkargoko kide izatea eskatzen duen jarduera profesional bat egiten duten pertsona fisikoen kolektiboko kide ez izatea, eta Administrazioarekin harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta

ez egotea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.c) artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

d) 2021ean ez edukitzea besteren konturako langilerik kontratatuta. Beharkizun hori betetzen ez duten pertsona fisikoek abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren bidez onartutako TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduaren 6.1 artikulua a) letran aipatzen den salbuespena eskatu ahal izango dute, betiere bertan jasotako zirkunstantziak justifikatzen badira.

2. Aurreko apartatua jasotakoa aplikagarri izango zaie sozietate zibilei, nortasun juridikoa izan ala ez, jaraunspen jasogabeei, ondasun erkideei eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. apartatua aipatzen diren gainerako entitateei, baldin eta zergak errenten esleipeneko araubidean ordaintzen badituzte, betiere azken apartatu horretan jarritako baldintzak betetzen dituztenean. Ondorio horietarako, adinari buruzko beharkizuna bazkide, jaraunse, komunero edo partaide guztiek bete beharko dute, hurrenez hurren.

3. Zergadunek uko egin ahal izango diote artikulua honetan aurreikusitako salbuespenari, Ogasun eta Finantza Foru Departamentura komunikazio bat bidaliz.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Donostia, 2021eko azaroaren 9a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.(7281)